

Pintura geruzaren premiazko finkatzea /
Fijación de urgencia de la capa pictórica.



Lanaren atzealdearen narriadura egoera /
Estado de deterioro del reverso de la obra.



Obraren berrehuntzea / Reentelado de la obra.



Eroritako harri-puskak edo pintura zati txikiak jartzea /
Fijación de lascas o pequeños fragmentos de pintura desprendidos.



Xehetasuna / Detalle.

## FITXA TEKNIKOA / FICHA TÉCNICA

- Gaia: San Martin kapa eskaleari zatitzen.
  Tema: San Martín partiendo la capa al mendigo.
- Egilea: Van Dycken taldeari egotzia.
  Autor: Atribuido al círculo de Van Dyck.
- Data: Barrokoa. XVIII. mendea.
  Fecha: Barroco. Siglo XVIII.
- Teknika: Oihal gaineko olio-pintura.
  Técnica: Oleo sobre tela.
- Neurriak: 287 x 232 cm (markoarekin).
  240 x 188 cm (markorik gabe).
  Medidas: 287 x 232 cm (con marco).
  240 x 188 cm (sin marco).
- Jatorria: Bachicaboko San Martin eliza.
  Procedencia: Iglesia de San Martín de Bachicabo.
- Zaharberritze lanak: Zaharberrikuntza Zerbitzua. AFAko Euskara, Kultura eta Kirol Saila.
  Restaurado por: Servicio de Restauraciones. Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de D.F.A.
- Urtea / Año: 2006-2009.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



ONDAREAREN BERRESKURATZEA
RECUPERACIÓN DE PATRIMONIO

# *SAN MARTIN KAPA ESKALEARI ZATITZEN*
# SAN MARTÍN PARTIENDO LA CAPA A UN MENDIGO

## San Martin kapa eskaleari zatitzen

XVII mendeko pintura da, estilo barrokokoa eta Van Dycken taldeari egotzia. Artelan hau oihal gaineko olioa da eta 287 x 232 cm ditu.

"San Martin kapa eskaleari zatitzen" pintura egun Bachicaboko San Martin parrokia elizako absidean nagusitzen den erretaularen parte da.

Erretaula Sebastian Hurtado de Corcuera kapitainari esker eraiki zen. Hau Bergondan jaio zen, 1587. urtean, eta erregearen gerra-kontseiluko kidea eta Filipinak eta Kanariar irletako gobernadorea izan zen. 1660an hil zen eta bere testamentuko agintzarien artean bere egoitzako koadroekin Bachicaboko parrokian erretaula bai eraikitzea ezarri zuen.

2006an Zaharberrikuntza Zerbitzuak koadro hau zaharberritzea erabaki zuen, erakusten zituen kalte larriak konpondu eta bere iraupena bermatzeko. Artelana oso kontserbazio-egoera txarrean zegoen. Narriadurarik larrienetako batzuk azpimarratzen ditugu:

• Koadroak urte askotan gehiegizko hezetasun maila izan du. Euskarriak mikroorganismoen erasoa jasan du, pixkanaka zuntzak suntsituz, eta sendotasuna eta elastikotasuna galduz.

• Pintura geruza toki askotan altxatuta zeukan. Gainera prestakinak atxikimendua galtzearen eraginez kolore hutsune asko zituen. Gehiegizko hezetasun honek erabilitako pigmentu batzuk atzera bueltarik gabe aldatzea ekarri zuen, kasurako esmalte urdina grisa bihurtu zen.

• Egurrezko bastidorea apurtuta zegoen eta beheko langa desagertuta, beraz pintura aske zegoen, zimurtuta, apurtuta, ustelduta eta gune handietan oihal galerekin.

Zaharberritu baino lehen, analisi eta azterlan osagarriak egin ziren. Analisietarako, oihalen eta bastidoreko eta markoko egurraren laginak hartu ziren, baita pintura geruzen eta prestakinen mikrolaginak ere. Guztira 30 mikrolagin aztertu dira.

Azterketa osagarriak ere egin dira, kasurako: erradiazio ultramorea, pinturaren gainazalaren egoera ikusteko; infragorrizko erreflektografia, azpian dagoen irudia ikusteko, eta artelanaren erradiografia, konposizioaren aldaketak antzemateko.

Behin artelana aztertu ondoren, zaharberrikuntza tratamenduari ekin zaio. Tratamenduaren faserik konplexuenak ondokoak izan dira: polikromia finkatzea, berrehuntzea eta berrintegrazioa.

Polikromia finkatzeko prozesua hiru bider jarraian egin behar izan da, pintura geruza euskarriari atxikitzea lortu arte. Beste alde batetik Bachicaboko erretaulan erorita aurkitutako harri-puska edo pintura-zatiak berariaz finkatu behar izan ziren.

Artelana berrehuntzea erabaki genuen, izan ere, euskarriko oihalaren eta prestakinaren kontserbazio-egoera txarra ikusita, berau berreskuratzeko aukera ematen zuen tratamendu bakarra zen.

Azkenik kolore galerak edo hutsuneak berreskuratu egin ziren. Kolorea berreskuratzeko prozesu honek 10 hilabete inguru iraun du.

Azterketa osagarrien emaitzak ikertu eta aztertu ondoren, Van Dycken taldeari egotzitako pintura honek bere neurri eta konposizioan aldaketa nabarmena izan zuela ondorioztatu dugu. Esku hartze hau erretaulan kokatzerako orduan egin zen, hau da, artistak margotu eta 30 edo 40 urtera. Alboak moztu ziren, San Martinen ezpata lekuz aldatu zen eta konposizioko zeruan ukituak eman ziren.

## San Martín partiendo la capa a un mendigo

Se trata de una pintura del siglo XVII, de estilo barroco, atribuida al círculo de Van Dyck. Esta obra está realizada al óleo sobre tela y tiene unas dimensiones de 287 x 232 cm.

La pintura "San Martín partiendo la capa a un mendigo" forma parte del retablo que actualmente preside el ábside de la Iglesia parroquial de San Martín de Bachicabo.

Este retablo se construyó gracias al capitán Sebastián Hurtado de Corcuera, nacido en Berguenda en 1587, miembro del Consejo de Guerra del rey, gobernador de Filipinas y de las Canarias. A su muerte en 1660 dispone entre sus mandas testamentarias que con los cuadros de su residencia se construyera un retablo en la parroquia de Bachicabo.

El Servicio de Restauraciones decide en el 2006 restaurar este cuadro con el fin de resolver los graves daños que presentaba y asegurar así su pervivencia. La obra se encontraba en un pésimo estado de conservación. Destacamos algunos de los deterioros mas graves:

• El cuadro ha estado durante muchos años con un nivel de humedad excesiva. El soporte presentaba ataque de microorganismos causando la destrucción progresiva de las fibras y perdiendo consistencia y elasticidad.

• Multitud de levantamientos de capa pictórica. Además numerosas lagunas de color ocasionadas por la pérdida de adhesión de la preparación. Este exceso de humedad ha causado la alteración irreversible de algunos pigmentos utilizados, como el azul esmalte que se ha transformado en gris.

• El bastidor de madera estaba roto y además el travesaño inferior había desaparecido por lo que la pintura estaba suelta, arrugada, rota, descompuesta y con pérdidas de grandes zonas de tela.



Garbiketaren xehetasuna /
Limpieza de la capa pictórica.



Zaldiaren kolore zuriaren estratigrafia /
Estratigrafia del color blanco del caballo.



Kolore galerak berkoloreztatzea /
Reintegración cromática de la pérdidas de color.



Zikinkeria geruzaren ezabaketa /
Eliminación del estrato de suciedad.

Antes de la intervención se ha procedido a la realización de los análisis y estudios complementarios. Para los análisis se han recogido muestras de los tejidos, de madera del bastidor y marco y micromuestras de capas pictóricas y preparaciones En total se han analizado 30 micromuestras.

También se han realizado estudios complementarios como radiación ultravioleta para observar el estado de la superficie pictórica, reflectografia de infrarrojos para ver el dibujo subyacente y el radiografiado de la obra para detectar cambios de composición.

Una vez estudiada la obra, se ha iniciado el tratamiento de restauración donde las fases más complejas del tratamiento han sido:la fijación de la policromía, el reentelado y la reintegración.

El proceso de la fijación de la policromía se ha tenido que realizar tres veces consecutivas hasta conseguir la adhesión de la capa pictórica al soporte. Por otro lado se tuvo que efectuar una fijación específica de las lascas o trozos de pintura caídas que se encontraron en el retablo de Bachicabo.

Decidimos realizar el reentelado de la obra ya que era el único tratamiento que, dado el pésimo estado de conservación del soporte textil y preparación, permitía su recuperación.

Finalmente se reintegraron las lagunas o perdidas de color. Este proceso de reintegración cromática ha durado alrededor de 10 meses.

Una vez estudiados y analizados los resultados de los estudios complementarios, hemos llegado a la conclusión de que esta pintura atribuida al círculo de Van Dyck ha tenido una modificación importante en sus dimensiones y composición. Esta intervención se realizó en el momento de su colocación en el retablo es decir 30 o 40 años después de que fuera pintada por el artista. Se recortaron los laterales, la espada de San Martín cambio de posición y se retocó el cielo de la composición.